

FUNTZESKO BALIABIDEAK

Proiektu bat aurrera eramateko, funtsezko baliabide ugari behar ditu, besteak beste baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Gure proiektuaren baliabide fisikoei buruz hitz egiten badugu, alde batetik lokal bat edukitzea izango litzateke eta bestetik, berriz, kamioi bat eta hainbat vending-makina produktuak saltzeko. Baliabide intelektualei dagokionez, ordenagailuak besterik ez dugu beharko bezeroei informatzeko.



Lehen esan dugun bezala, Ainhoak, Iratik, Andreak eta Marinak enpresaren kudeaketaz eta administrazioaz arduratuko lirateke, hau da, hauetako batek webgunean arduratuko litzateke, negozioan hain zuzen ere. Honek adibidez, hegazkinen bilaketan arituko da. Beste kide batek, logistikan jardungo du (supermerkatuak bilatzen, beharrak dituzten herrialdeak aurkitzen eta kanpoko beste erakundeekin harremanetan aritzen, etab.). Hirugarren kideak, kudeaketaz (elikagaiak nola eskuratu, hegazkinen eta kamioien ibilbideak egin, zer motatako garraioa erabili produktu bakoitzerako), eta azkeneko kideak, helmugaz (bidalitako produktuak ia herrialdera heldu diren, noiz eta nola helduko diren, etab.).



Azkenik, proiektua aurrera egiten duenean, saltzen ditugun produktuen bidez finantza-baliabideak lortuko ditugu baina proiektua sortzerako orduan, baliabide horiek maileguak eta kredituak eskatuz lortuko ditugu. Administrazioaz arduratzen direnek funtsen fluxuen zuzenketa aztertu eta planifikatuko dute, etorkizunean diru-arazoak saihesteko.